

EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2019



Bilbao

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

ARTE BIZIAK / MUSIKA **MAR. 22** (ostr.)

Unclose



Iskandar Rementeriak (ahotsa, gitara, sintetizadoreak eta programazioak) eta David 'Deibol' Rodriguezek (bateria akustikoak eta elektronikoak) osatutako bikote bilbotarra da **Unclose**. Txufo Wilson (aka Empty Files) izaten dute lagun zuzenekoetan, teklatuak joz. Taldekide dira, horiekin batera, beste bi hauek ere: batetik, Jose Lastra ekoizlea eta zuzeneko teknikaria, zeinak grabatu eta nahastu dituen kantu guztiak bandaren entsegu lokalean, eta, bestetik, taldearen ikus-alderdia (argazkilaritza, bideoak, bisualak eta web honen diseinua) garatzen duen Ainara Ipiña.

Horien konposizio eta zuzenekoetan instrumentazio elektrikoaren energiak eta elektronikaren soinu aniztasunak bat egiten dute; era horretan, askotariko estiloetara hurbiltzen dira, hala nola postpunka, elektronika eta popera. 2016an argitaratu zuten haien lehenengo EPa, Runaways (Winehouse Records), kritika espezializatuan oihartzun zabala lortuz.

2017an jaio zen The Long Tomorrow LPa; Moebiusen eta Dan O'Bannonek 1975ean argitaratu zuten komiki futuristan oinarritutako izenburua zuen. Lan hori 2017ko diskorik onenen zenbait zerrendatan (Zarata Mondosonoro, Bi Fm) sartu izan dute lan hori, bai Euskal Herrian, eta bai Espainia mailan ere (Alicante Live Music).

«Unclose orainaldiz elikatzen den arren, noranzko jakina du argi eta garbi: etorkizuna. Erdi irekian, itxi gabe utzitako atearen bestaldean dagoena sumatu dute, eta euren norabidea finkatu dute. Han aurkituko dutena ezezaguna, hondagarria edo bihotz-altxagarria izango da, baina mereziko du begiratu bat egitea. Etorkizuna eta lehenaldia, bakoitza esku banatan hartuta, hemengoaren eta orainaren iheslariak dira». María Taosa (Siglo 21, Radio 3)

////////////////////////////////////

Martxoak 22, ostirala

21:00

Lantegia 1

10€ / 8€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

 www.uncloseband.com

 [@uncloseband](https://www.facebook.com/uncloseband)

 [@uncloseband](https://twitter.com/uncloseband)

 [@uncloseband](https://www.instagram.com/uncloseband)

 [Unclose](https://www.soundcloud.com/unclose)

Laguntzaila:

